




EMAKUMEAK, ELIKADURA-SUBIRANOTASUNAREN PROTAGONISTAK

Kubatarren eta euskaldunen bizipenak

EUSKAL HERRIA *

MUJERES, PROTAGONISTAS DE LA SOBERANÍA ALIMENTARIA

Experiencias cubanas y vascas

* CUBA

Euskadi-Cuba elkartek eta EHNE Bizkaia erakundeak elkarlanean egindako kanpainaren parte da ***Emakumeak, elikadura-subiranotasunaren protagonistak***. Kubatarren eta euskaldunen bizipenak erakusketa. Haren bidez, justizian eta berdintasunean oinarritutako elikadura-subiranotasunaren aldeko apustuarekin bat egin nahi izan du Euskadi-Cuba elkartek, elikadura-subiranotasuna ezin izango baita gauzatu harik eta emakumezkoak protagonistatzat hartu arte.

Elikadura-subiranotasuna deritzo, hain zuzen, herritar guztien elikatze-eskubidea bermatzeko beharrezkoak diren elikagaiak ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko politika nahiz estrategia propio eta iraunkorrak definitzeko herriek duten eskubideari. Ekoizle txikiak eta ertainak oinarri hartzen dituen sistema horren bidez, nekazaritzako nahiz abeltzaintzako produktuak ekoizteko, produktu horiek merkaturatzeko eta landa-eremuak kudeatzeko nekazarien, arrantzaleen nahiz indigenen ohitura-aniztasunak eta kulturak errespetatuko dira, emakumeek funtsezko eginkizuna izango dutelarik horietan guztietan.

Hainbat emakumek eta erakundek -hala Nekazari Txikien Elkarte Nazionalak (ANAPek) nola EHNE Bizkaia erakundeak (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasunak)- Kuban nahiz Euskal Herrian egindako lana bildu dute Josu Truebaren eta Pau Collen **argazki dokumentalek**. Bi elkarte horiek, bidenabar, La Vía Campesina nazioarteko nekazaritza-mugimenduko kide dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo helbide honetara: **www.euskadicuba.org**
Erakusketa eskatzeko: sensibilizacion@euskadicuba.org / 94 415 11 07

Argazkien egileak

Josu Trueba Leiva (Galdakao,1981) argazkigintza dokumentalean ari da 2007. urtetik. Lantzen dituen gai ei buruzko eztabaidak sortzea izan da beti argazkilari horren helburua. Beste gai batzuen artean, sakabanaketa, HIESa, okupazioa eta punk-a jorratu ditu.

Pau Coll (Badalona, 1983) Institut d’Estudis Fotografics de Catalunya institutuan ikasi zuen, eta argazkigintza dokumentalean berezitu da. RUIDO Photo taldearen sortzaileetako bat izateaz gain, talde horren baitan garatu du bere lanbide-ibilbidea, argazkigintza gizarte aldatzeko tresna moduan erabiltzen du.
www.ruidophoto.com

Esta exposición se enmarca en la campaña realizada por la asociación Euskadi-Cuba en colaboración con EHNE-Bizkaia, ***Mujeres, protagonistas de la soberanía alimentaria. Experiencias cubanas y vascas***. La asociación Euskadi-Cuba se suma así a la apuesta por la soberanía alimentaria construida sobre bases de justicia e igualdad que no podrá ser desarrollada sin tener en cuenta a las mujeres como protagonistas.

La **Soberanía Alimentaria** se entiende como el derecho de los pueblos a definir sus propias políticas y estrategias sustentables de producción, distribución y consumo de alimentos que garanticen el derecho a la alimentación para toda la población, con base en la pequeña y mediana producción, respetando sus propias culturas y la diversidad de los modos campesinos, pesqueros e indígenas de producción agropecuaria, de comercialización y de gestión de los espacios rurales, en los cuales la mujer desempeña un papel fundamental.

Las **fotografías documentales** de Josu Trueba y Pau Coll muestran la labor desarrollada en Cuba y Euskal Herria por mujeres y organizaciones como la Asociación Nacional de Agricultores Pequeños (ANAP) o el sindicato EHNE Bizkaia (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna), ambas integradas en el Movimiento Campesino Internacional Vía Campesina.

Para más información **www.euskadicuba.org**
Solicitudes exposición: sensibilizacion@euskadicuba.org / 94 415 11 07

Fotografías realizadas

Josu Trueba Leiva (Galdakao,1981) se dedica desde el 2007 a la fotografía documental, siempre con el objetivo de generar un debate entorno a las temáticas que trata. Dispersión, SIDA, ocupación o punk son algunos de los temas sobre los que ha trabajado.

Pau Coll (Badalona,1983) cursa sus estudios en el Institut d’Estudis Fotografics de Catalunya, especializado en fotografía documental. Es miembro fundador del colectivo RUIDO Photo, donde ha desarrollado su trayectoria profesional utilizando la fotografía como herramienta de transformación social.
www.ruidophoto.com

Nekazari Txikien Elkarte Nazionala (ANAP) 1961eko maiatzean sortu zen. Gobernuz kanpoko erakunde soziala da, Kubako emakume nahiz gizonezko nekazarien interes sozial eta ekonomikoak defendatzen dituena. Kubako oinarri-erakunderik garrantzitsuena da. 3.800 kooperatiba baino gehiago biltzen ditu. Nekazaritza- eta abeltzaintza-kooperatiba dira horietako 1.150; gainerakoak, ordea, kreditu-kooperatibak dira. Herrialdeko krisialdi ekonomikoari aurre egiteko asmoz, hainbat neurri ezarri ditu ANAPek, besteak beste: produktu organikoak erabiltzea; lanabesak eta lanerako tresnak egiteko orduan tokian tokiko baliabideak erabiltzea; edota ordezko energia-iturriak erabiltzea. Gaur egun, nabarmentzekoak dira generoari buruzko haren estrategia, eta elikadura-subiranotasunaren alde erakunde horrek egindako lana.

EHNE-Bizkaia (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) nekazaritza-sindikatu da, hots, nekazaritzako erakunde profesionala. 1976-1977 urteen artean sortu eta legeztatu zen. Hainbat urtez aldarrikapenak eta proposamenak egin baditu ere, Euskal Herri osoan elikadura-subiranotasuna bultzatzea da, egun, haren helburu nagusia. Erabakitzeko gaitasunari loturik dagoenez, ondo informatutako herriaren nahia errespetatzea dakar berekin elikadura-subiranotasunak; eta herritarrek honakoa nahi dute: osasungarritasuna, elikagaien kalitatea, ingurumenarekiko eta klimarekiko errespetua, eta landa-inguruneko enpleguak nahiz bizitasuna bermatuko dituen nekazaritza-ekoizpen ekologikoa.

.....
Asociación Nacional de Agricultores Pequeños (ANAP) fue creada en mayo de 1961, es la organización que representa los intereses sociales y económicos de las campesinas y los campesinos en Cuba, tiene un carácter social no gubernamental. Es la organización de base más importante del país. Consta de más de 3.800 cooperativas, de las cuales 1.150 son Cooperativas de Producción Agropecuaria y el resto Cooperativas de Servicios de Crédito.

ANAP ha adoptado medidas para afrontar la crisis económica del país como el uso de productos orgánicos, el empleo de recursos locales para la fabricación de herramientas y útiles de trabajo o el uso de fuentes alternativas de energía. Destaca en la actualidad su estrategia de género y el trabajo por la soberanía alimentaria.

EHNE-Bizkaia (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) es un sindicato agrario, una organización profesional agraria, nacida y legalizada en los años 1976-1977. Tras muchos años de andadura, tanto reivindicativa como propositiva, en estos momentos tiene como principal objetivo impulsar la soberanía alimentaria en el conjunto de Euskal Herria, principio clave en cuanto a que implica capacidad de decidir, pero vinculado también a lo que una sociedad bien informada quiere, que es una producción agroecológica cercana, que garantice salubridad, calidad alimentaria, y respeto al medio ambiente y al clima, además de empleo y vitalidad del medio rural.